



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BASAURIKO UDALAREN ARTEAN SINATUTAKO KATASTROA KUDEATZEKO HITZARMENAREN LUZAPENA

PRÓRROGA DEL CONVENIO PARA LA GESTIÓN CATASTRAL SUSCRITO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE BASAURI

HAUEK BILDU DIRA:

REUNIDOS

Alde batetik, José María Iruarrizaga Artaraz Bizkaiko Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatzuz

De una parte, D. José María Iruarrizaga Artaraz, Diputado Foral de Hacienda y Finanzas de Bizkaia, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia

Bestetik, Asier Irargorri Basaguren jauna, Basauriko Udaleko alkate-udalburua, Basauriko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

De otra parte, D. Asier Irargorri Basaguren, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Basauri, en nombre y representación del Ayuntamiento de Basauri.

Alde biak, euren eskumenengatik eta elkarri hitzarmen hau sinatzeko ahalmenak eta gaitasunak aitortuz.

Dichas partes, en razón de sus respectivas competencias y reconociéndose poderes y facultades para formalizar el presente convenio.

ADIERAZTEN DUTE:

MANIFIESTAN

I. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Higiezinaren Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarriarik dagoenarekin bat etorritik, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen eskusiboa da Higiezinaren Foru Katastroa eratzea eta mantentzea, bai eta katastroko informazioa zabaltzea ere. Eginkizunon artean daude, besteak beste, katastroko datuen kontserbazioa, berritze eta berrikusketa, errolda prestatzea, datuen ikuskaritza eta katastro-kartografia prestatu eta kudeatzea, eta Ogasun eta Finantza Sailak beteko dituen eginkizun horiek, zuzenean zein udalekin edo bestelako tokierakundeekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenen bidez, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

I. Que de acuerdo con el artículo 4 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo del Catastro Inmobiliario del Territorio Histórico de Bizkaia, es competencia exclusiva de la Diputación Foral de Bizkaia la formación y mantenimiento del Catastro Inmobiliario Foral así como la difusión de la información catastral. Estas funciones que comprenden, entre otras, la conservación, renovación y revisión de los datos catastrales, la elaboración del Padrón, la inspección y la elaboración y gestión de la cartografía catastral, se ejercerán por el Departamento de Hacienda y Finanzas, directamente o a través de los convenios de colaboración que se celebren con los Ayuntamientos u otras entidades locales, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

II. 1997ko maiatzaren 8an Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmen bat sinatu zuen Basauriko Udalarekin. Hitzarmen horren bidez, katastroa kudeatzeko zenbait ahalmen eskuordetu zitzaizkion Bizkaiko Foru Aldundiari, Udalak erabil zitzaizkion, betiere Bizkaiko Foru

II. Que con fecha 8 de mayo de 1997 la Diputación Foral de Bizkaia firmó un Convenio con el Ayuntamiento de Basauri en virtud del cual se delegaba determinadas facultades de gestión catastral competencia de la Diputación Foral de Bizkaia para

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **d448f28894edb6993a2dc92df24afdf788bace81**  
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **FIRDOC-202103141**  
<https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

Data / A día:

**ASIER IRAGORRI BASAGUREN**

**17/11/2021 11:17:06**





Aldundiak ezarritako ereduari, balioespen- eta eguneratze-irizpideei eta aplikatzeko jarraibideei jarraituz. Eta, horren ondorioz, Basauriko Udalak hitzarmen horretan aipatutako eginkizunak bete ditu, eskuordetze araubidean.

que fueran ejercidas por el Ayuntamiento siguiendo siempre el modelo, criterios de valoración, actualización e instrucciones para su aplicación fijadas por la Diputación Foral de Bizkaia. En consecuencia el Ayuntamiento de Basauri ha venido ejerciendo en régimen de delegación las funciones citadas en dicho Convenio.

III. Eskuordetze horrek urteetan behar bezala funtzionatu zuenez, 2016ko abenduaren 19an beste hitzarmen bat sinatu zen, egungo katastrokudeaketaren baldintzetara egokitzeko eta indarreko araudi berrira betetzeko. Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

III. Que, dado que esta delegación había funcionado durante años de manera satisfactoria, el 19 de diciembre de 2016 se suscribió un nuevo Convenio a fin de que se adaptara a las circunstancias de la gestión catastral actual y cumpliera con la nueva normativa vigente, siendo su plazo de vigencia de cuatro años, con efectos a partir del 1 de enero de 2017.

IV. Hitzarmen horren Zortzigarren estipulazioak ondoz ondoko urtebeteko epeetan luzatzeko aukera aurreikusten duela, baldin eta sinatzaileetako edozeinek ez badio beste aldeari kontrako borondatearen berri ematen luzapenak eragina izango duen urtearen aurreko urteko irailaren bata baino lehen.

IV. Que la Estipulación Octava de dicho Convenio prevé la posibilidad de prórroga por plazos sucesivos de un año siempre que cualquiera de los firmantes no notifique a la otra parte su voluntad en contra antes del uno de septiembre del año anterior al año en que la prórroga vaya a surtir efecto.

V. Hitzarmen horren zazpigarren estipulazioak ezartzen du katastroa mantentzeko kostua bi administrazio publikoek partekatuko dutela. Ondorio horietarako, Bizkaiko Foru Aldundiak urtero ezarriko du bere aurrekontuetan Basauriko udalerriko katastroa mantentzeko finantzaketara bideratutako zenbatekoa. Zenbateko horrek Udalak kanporatutako lanen kostuaren ehuneko hirurogeita hamabost ( % 75) estali beharko du (alde zuzenetik planifikatu eta Jarraipen Batzordeak aztertu eta kontuan hartu beharko ditu, ondoren dagokion aurrekontu-ekitaldian garatzeko). Gehienez ere berrogeita hamar mila euro ordaindu beharko dira urtero (50.000 €). Hitzarmenaren Bigarren Xedapen Iragankorrak ezartzen du Zazpigarren Xedapenean xedatutakoa Hitzarmena indarrean dagoen lau urteetan aplikatuko dela, alderdiek hurrengo urteetan aplikatzeko duten aukera alde batera utzi gabe.

V. Que la Estipulación Séptima del precitado Convenio establece que el coste del mantenimiento del catastro se compartirá por ambas administraciones públicas. A estos efectos, la Diputación Foral de Bizkaia establecerá anualmente en sus Presupuestos la cantidad destinada a la financiación del mantenimiento del catastro del municipio de Basauri, que deberá cubrir el setenta y cinco por ciento (75%) del coste de los trabajos externalizados por el Ayuntamiento (previamente planificados y sometidos al estudio y consideración de la Comisión de Seguimiento, para su posterior desarrollo en el ejercicio presupuestario correspondiente), siendo el importe máximo a abonar anualmente de cincuenta mil euros (50.000 €). La Disposición Transitoria Segunda del Convenio establece que lo dispuesto en la Estipulación Séptima será de aplicación durante los cuatro años de vigencia del Convenio sin perjuicio de la posibilidad de las partes de acordar su aplicación en años posteriores.

Hitzarmena indarrean egon den bitartean esperientzia

Dada la experiencia satisfactoria constatada durante la

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): <b>d448f28894edb6993a2dc92df24afdf788bace81</b> Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: <b>FIRDOC-202103141</b> <a href="https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvvalidation.do">https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvvalidation.do</a>	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
<b>ASIER IRAGORRI BASAGUREN</b>	<b>17/11/2021 11:17:06</b>





ona izan dela egiaztatu denez, aldeek luzapen-akordio hau sinatu dute, klausula hauen arabera:

vigencia del Convenio, las partes intervinientes suscriben el presente Acuerdo de prórroga conforme a las siguientes

**KLAUSULAK**

**CLÁUSULAS**

**Lehena**

**Primera**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Basauriko Udalak katastroa kudeatzeko sinatutako hitzarmena urtebetez luzatuko da, 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte.

Se prorroga por un nuevo plazo de un año desde el 1 de enero de 2022 hasta el 31 de diciembre de 2022 el Convenio para la gestión catastral entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Basauri.

**Bigarrena**

**Segunda**

Luzapen-aldi horretan, Hitzarmenaren Zazpigarren estipulazioan xedatutakoa aplikatzen jarraitzen da.

Durante este periodo de prórroga sigue siendo de aplicación lo dispuesto en la Estipulación Séptima del Convenio.

Horrekin guztiarekin ados daudela agertzeko, bi aletan sinatzen dute, goian adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad, lo suscriben por duplicado ejemplar en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. CCBW-VV3F-NYF6-ZYY6 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) helbidean. Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) CCBW-VV3F-NYF6-ZYY6 en [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus).

Sin./Fdo.: JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ - 2021-11-18  
OGASUN ETA FINANTZA SAILA-REN FORU DIPUTATUA  
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): <b>d448f28894edb6993a2dc92df24afdf788bace81</b> Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: <b>FIRDOC-202103141</b> <a href="https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do">https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do</a>	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
<b>ASIER IRAGORRI BASAGUREN</b>	<b>17/11/2021 11:17:06</b>

